# JUNDIZ MUINOA
# CERRO DE JÚNDIZ




Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

VITORIA GASTEIZ turismo & convention bureau


Plaza de España,1
t. 945 16 15 98
f. 945 16 11 05
turismo@vitoria-gasteiz.org
www.vitoria-gasteiz/turismo
anilloverde.vitoria-gasteiz.org


CALIDAD TURISTICA









SARBIDEEN PLANOA — PLANO DE ACCESOS

## JUNDIZ MUINOA

***Paisaia berezi batera joateko bisita autogidatua***

**Jundiz muinoa** kultura eta natura ondasun garrantzitsuak dituen toki aparta da. Lurraldea eta inguruan jazotako gertaerak ulertzeko gune pribilegiatu bihurtzen du bertako topografiak. Gertaera horien artean daude, esate baterako, 1813ko Gasteizko gudua edo 1367ko martxoko Inglesmendiko borroka. Hiritik 4 km-ra dago, mendebaldean, eta Gasteizko mendien, Zadorra ibaiaren eta Badaia mendilerroaren arteko lotura ekologikoa da. Hori guztia dela eta, Paisaia Berezi izendatzea proposatu da.

**Bertara iristeko**, hurbileko herrietara joatea izango da onena: **Margaritatik** abiatuta, Trespondera norabidean, sarbidea dago industrialdearen amaieran. Autoz edo bizikletaz joanez gero, horixe da aukerarik erosoena. **Ariztik** iparralderantz beste sarbide bat dago A-1 autobidea gurutzatzen duen zubia zeharkatu ondoren. Autobusez: 5 eta 5b/5c lineak.
(Ikusi *Sarbideen Planoa*).

**Behatokien ibilbidea**
Jundiz muinotik gertu, seinaledun ibilbide bat dago. Inglesmendiren tontorraren inguruko ibilbide zirkularra da. Gaikako lau behatoki daude, paisaiaz gozatzeko eta tokiko honako balio hauek hedatzeko: flora, geologia, fauna eta historia. Gasteizko guduan interesa dutenak Jundizko tontorrera igo daitezke gertaera hari buruzko orientazio-mahaia ikusteko.
(Ikusi *Behatokien Ibilbidea*).

## EL CERRO DE JÚNDIZ

***Visita autoguiada a un paisaje singular***

El **Cerro de Júndiz** es un lugar único que atesora importantes valores culturales y naturales. Su topografía lo convierte en un punto privilegiado para la comprensión del territorio y de los hechos históricos ocurridos en su entorno, como la Batalla de Vitoria en junio de 1813 o el combate de Inglesmendi en marzo 1367. Ubicado a 4 km. al oeste de la ciudad, posibilita la conexión ecológica entre los Montes de Vitoria, el río Zadorra y la Sierra de Badaia. Por todo ello se ha propuesto su declaración como **Paisaje Singular**.

**Para llegar** lo mejor es dirigirse hacia los pueblos más próximos, existiendo dos opciones: desde **Margarita**, en dirección a a Trespuentes, hallaremos un acceso al final de la zona industrial. Es la opción más cómoda si se va en coche o en bicicleta. Desde **Ariñez**, saliendo hacia el norte, hay otro acceso tras cruzar el puente que atraviesa la autovía A-1. En autobús: Líneas 5 y 5b/5c.
(Ver *Plano de Accesos*).

El **Itinerario de los Miradores**
En las proximidades del Cerro de Júndiz encontraremos un itinerario señalizado. Se trata de una ruta circular en torno a la cima de Inglesmendi que incluye cuatro miradores temáticos para el disfrute del paisaje y divulgación de los siguientes valores del lugar: Flora, Geología, Fauna e Historia. Para los interesados en la Batalla de Vitoria, se puede prolongar la visita ascendiendo a la cima de Júndiz donde una mesa de orientación dedicada a dicho evento.
(Ver *Itinerario de los Miradores*).

